



KARTA-JOKORIK KUTSAKORRENA

Tranjis-eko Andre Mariaren ospitalean alarmek salto egin dute; laborategiko hasiberriek laginen edukiontzia hutsik zeudela uste zuten, baina orain konturatu dira ezetz, birusen laginak barruan baitaude.

Jada berandu da, ordea. Birus horiek hara eta hona dabilta ospitalean zehar. Zeuk bakarrik geldiaraz ditzakezu.

Hau da zure eginkizuna: pandemiari adozez aurre egitea, eta lehia jardutea birusak suntsitzen lehena izateko. Horretarako, gorputz osasuntsu bat isolatzea lortu behar duzu, **gaixotasun izugarriak gehiago ez zabaltzeko** bidea izanik.

Eskura dituzun baliabide guztiak irabazteko balio dute, etikoak izan ala ez. Garaileak aintzatespenak jasoko ditu, eta galtzaileak osasun-agintari haserretuen esku egongo dira.

Erabili ezazu abilezia garaipena lortzeko, aurkarien ahaleginak zapuztuz.

Bertrand Russell-ek esan zuen: "Gizateria libratuko duen gauza bakarra lankidetzeta da". Bistan da ez zuela joko hau ezagutzen.



Birusa! **2-6 jokalarira arteko** karta jokoa da. Giza gorputz bat eraiki beharko duzu, aurkariak zure organoak infektatzea saihestuz.

EDUKIA

Kutxak 68 karta ditu, lau motatakoak:

Organoak



Birusak



Sendagaiak



Tratamenduak



*Karta zuriak ere badaude, zuk nahi dituzun arauak asma ditzazun!



PRESTAKETA

Nahasi kartak eta banatu **3na karta** karta jokalaria bakoitzeko.

Jarri karta-multzoa buruz behera mahaiaren gainean, jokalaria guztien eskura. Multzoaren alboan beste karta-pilo bat jarriko da buruz gora, jokalaria uzten joango diren kartekin. Karta-multzoa bukatuta, utzitako karta-piloari buelta eman, besterik gabe. Ez da beharrezkoa berriro nahastea.



JOKOAREN HELBURUA

Izan zaitez lehena gorputza osatzen. Mahai gainean, zure aurrean, **4 organo osasuntsu desberdin** biltzea lortzen baduzu, partida irabaziko duzu!

ORGANO OSASUNTSUAK

Organoa birusik gabe



Organoa txertoa jarrita



Organoa immunizatuta



Organo osasuntsuztat joko dira birusik ez dutenak, edo txertaturik nahiz immunizatuta daudenak.

Aurrerago azalduko dugu karta bakoitza nola erabiltzen den.



JOKOAREN MEKANIKA

Jokalaria bakoitzak, txanda hasieran, 3 karta izan behar ditu beti eskuan, txanda bakoitzean ekintza bakarra egin ahal izango duelarik. Ekintza hori egin ondoren, kartak lapurtuko ditu mahaiaren dagoen karta-multzotik, berriro ere bere eskuan 3 edukitzeko.

Karta-mota desberdinak jokatu behar dituzu: zure aurrean, mahai gainean jarritz, zure gorputza osatzeko; edo zure aurkarien karten gainean, horiek zuk baino lehenago gorputza osa ez dezaten.

Karta batzuek behartu egingo zaituzte zure kartak uztera edo aldatzera: organoak, txertoak, zein eskuan dituzun karta guztiak. Presta ezazu zeure estrategia gorputz osoa osatzea lortzen duen lehena izateko. Adi egon besteen jokaldiei, gainerako jokalariei ez baitiezu utzi behar gorputza zuk baino lehen bukatzen.



JOKOAREN FASEAK

BIRUSA! Joko dinamikoa da: aukeratu **karta bat jokatzea edo nahi bezainbeste karta uztea**. Gero, behar adina karta lapurtu behar dituzu, hurrengo jokalaria txanda pasatu aurretik eskuan berriro 3 izateko. Ezin duzu txanda-pasa egin txanda hori jokatu ez baduzu.

1. FASEA: aukeratu ekintza hauetako bat, **JOKATU** edo **KARTA(K) UTZI**

Txanda bakoitzean zure eskuko karta bakarra joko dezakezu.

EDO

Nahi beste karta utz ditzakezu.

2. FASEA: LAPURTU

Eskuan berriro 3 karta edukitzeko behar adina karta lapurtu.

3. FASEA: HURRENGOAREN TXANDA

Pasa txanda eskuinean duzun jokalaria.

KARTA MOTAK



ORGANOAK

Bildu kolore desberdineko lau organo osasuntsu joko irabazi ahal izateko. Ezin dituzu zure gorputzean bi organo berdin eduki.

Oharra: zure gorputzak bost organo desberdin izan ditzake, horietako bat koloreaniztuna izanez gero eta partida irabaz dezakezu organo horietako lau osasuntsu badaude.



BIRUSA

Erabili birusaren kartak zure aurkarien organoak eta sendagaiak suntsitzeko. Birusek beren kolore bereko organoei eta sendagaiari soilik eragiten diete.



KUTSATU

Jjarri birus-karta bat bere kolore bereko organo baten gainean organoa kutsatzeko. Kutsatutako organoak **ez dira osasuntsuztat hartzen**, beraz, ezin dute lagundu gorputza osatzen.



ERAUZI

Suntsitu kutsatuta dagoen organo bat. Jarri beste birus bat lehendik birus batekin kutsatuta dagoen organo baten gainean. Organo hori suntsituta geratuko da, eta hiru karta horiek utzitako karten piloa utziko dira.



NEUTRALIZATU

Suntsitu txerto bat. Erabili birus bat organo baten gaineko sendagai bat ezabatzeko; baina birusak sendagaiaren kolore berekoa izan behar du. Bidali birusa eta sendagaia utzitako karten pilora.



SENDAGAIK

Sendagai-kartek zure organoak birusetatik babesteko balio dute. Hau da, birus-kartak suntsi ditzakete edo organoak babes ditzakete, kutsatuak izan ez daitezten. Erabili sendagai-kartak kolore bereko karten gainean (birusen edo organoen gainean).



SENDATU

Suntsitu birus bat. Erabili sendagai-karta organo baten gainean dagoen kolore bereko birus bat baztertzeko. Bidali bi karta utzitako karten pilora.



TXERTATU

Babestu organo bat. Jarri sendagai bat kolore berekoa den eta libre dagoen organo baten gainean. Orain, organo hori kutsatu ahal izateko, aurretik sendagai hori ezabatu beharko dute aurkariak.



IMMUNIZATU

Jarri bigarren sendagai-karta organo baten gainean. Organo hori **betiko geratuko da babestuta** edozein birusen erasoaren aurka; eta tratamendu-kartek ezin izango dute suntsitu edo kaltetu. Jarri bi sendagai-kartak organoaren gainean zeharka, organo hori immunizatuta dagoela adierazteko.



TRATAMENDUAK

Tratamendu-kartek joko alda dezakete, irabazten laguntzeko. Erabil itzazu zure mesedetan edo zure aurkariak gorputza zuk baino lehen ez osatzeko. Karta horiek utzitako karten piloa gainean uzten dira, eta berehalako eragina dute.



TRANSPLANTEA

Trukatu organo bat beste batekin, edozein bi jokalariren artean. Berdin dio organo horien kolorea desberdina den, edo osasuntsu, kutsatuta nahiz txertatuta dauden. Jokalariak, besterik gabe, aukeraturako organoa beste organo batekin aldatuko du; baina immunizatuta dauden organoak ezin dira trukatu, eta trukatu ondoren jokalariek ezin dituzte kolore bereko bi organo eduki.



ORGANO-LAPURRA

Lapurtu beste jokalar baten **organoa** eta gehitu zure gorputzari. Organo osasuntsuak, txertatuak edo kutsatuak lapur ditzakezu; ez, ordea, immunizatuak. Gogoan izan ezin dituzula kolore bereko bi organo eduki.



KUTSATZEA

Eraman ahalik eta birus gehien zure organo kutsatuetatik gainerako jokalariren organoetara. Ezin duzu kutsatu txertatutako edo infektatutako organorik; **organo libreak** soilik kutsatu ahal izango dituzu.



LATEXEZKO ESKULARRUAK

Jokalari guztiek **beren eskuko karta guztiak utziko dituzte**, eskularruak dituen jokalariek izan ezik. Jokalari horiek, hurrengo txandaren hasieran, kartarik ez dutenez, multzotik 3 karta hartu besterik ezin dute egin, eta, horrela, joko-txanda bat galduko dute.



MEDIKU-AKATSA

Trukatu zure gorputz osoa beste jokalar baten gorputzarekin, organoak, birusak eta txertoak barne. Berdin dio bakoitzak mahaiaren zenbat karta dituen. Karta hori erabiltzen baduzu, **immunizatutako organoak ere trukatu egiten dira**.

KARTA KOLOREANIZTUNA

Hiru motatako karta koloreaniztunak daude: organoa, birusa eta sendagaiak. Karta koloreaniztun batek beti gordetzen ditu 4 koloreak, eta ez du beste kartarik ordezkatzeko. Hori dela eta, oso ahaltsuak dira, edozein koloretako kartei eragin diezaiekete. Alabaina, oso hauskorrak ere badira, edozein kartak min egin diezaieke eta.



Organo koloreaniztuna bi sendagai desberdinekin immuniza daiteke, baina bi birus desberdinekin ere erauzi daiteke.



Birus koloreaniztuna edozein organo edo sendagairi erasotzeko erabil daiteke, baina birus horiek edozein koloretako botikarekin ere senda daitezke.

Sendagai koloreaniztunak birus edo organo guztietan erabil daitezke. Nolanahi ere, sendagai horiek edozein koloretako birusekin suntsi daitezke.



AHOLKUAK ETA TRIKIMAILUAK

BIRUSA! Joko arina da. Gaixotasunak zenbat eta azkarrago kutsatu, orduan eta dibertigarriagoak izango dira zure partidak.

Saia zaitetz zure organoak ahal den azkarren immunizatzen, besteek suntsi ez ditzaten. Zenbat eta organo gehiago immunizatu, orduan eta aukera gehiago izango dituzu irabazteko.